

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

A1 eta A2 zein A1/A2 (A, B, A/B) taldeetako lanpostuak betetzeko sustapen eta enplegu-eskaintza publikorako deialdia onestea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 8an egindako ohiko bilkuran onetsi egin zuen Gasteizko Udaleko A1 eta A2 zein A1/A2 (A, B, A/B) taldeetako lanpostuak betetzeko barne-sustapen eta enplegu-eskaintza publikorako deialdia.

Gasteizko Udalak, agintaldi honetarako ezarritako helburuen barruan, 2017ko aurrekontu legeak baimendutako sustapen eta enplegu eskaintza publikora deitzea proposatzen du lanpostuak betetzeko, horrek bide emango baitu, batetik, udal egitura sendotzeko, eta bestetik, udalaren zerbitzura dauden langileen administrazio karrera sustatzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak honela dio enplegu-eskaintza publikoaz 70. artikuluan: "Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeko beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek (eta, gehienez, ehuneko hamarreko kopuru gehigarria) betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea eta deialdia egiteko gehieneko epea ere finkatzea. Nolanahi den ere, enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna hori betetzeko, hiru urteko epea izango da gehienez ere, eta epe hori ezingo da inola ere luzatu."

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 16. artikuluan —apirilaren 12ko 7/2007 Legearen ildotik jasota dagoenez, "karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea izango dute". Honako eskubidea izango dute, besteak beste: "c) eskubidea: "barne-sustapen bertikala; horren bidez, kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igo daiteke, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera".

Barne-sustapena hautaketa-prozesuen bitartez egingo da, betiere, berdintasun-, merezi-mendu-, eta gaitasun-printzipio konstituzionalak eta estatutu horretako 55.2 artikuluan ezarritakoak beteko direla bermatuta.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak hala xedatzen du 23. artikuluan:

1 Administrazio publikoetako langileekin bete ezin diren giza baliabideak, aurrekontu-izendapena dutenak, lan eskaintza publikoaren bidez beteko dira.

2 Enplegu publikorako eskaintzan, bete behar diren plaza betegabeak adieraziko dira, bai funtzionarioenak eta bai lan-kontratuko langile finkoenak ere. Plazok funtzionarioen lan-kategoriara edo taldeka, kidegoka eta eskalaka sailkatuko dira. Plaza horiek sartzeko ez du esan gura alde aurretik lanpostu horien lehiaketa egin behar denik funtzionarioen artean.

3 Ezingo da plazak betetzeko aukeraketa-probetarako deialdirik egin, enplegu publikorako eskaintzaren arabera plaza horiek bete beharrekoak ez badira."

Bestalde, aipatutako Legean jasota dagoenez, funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dute, eta 55. artikuluan eta ondorengoetan arautzen duenez, funtzionarioak beren taldeko beste kidego edo eskala batzuetara edo horren gain-gaineko taldekoetara sartzeko eskubidea izango dute, barne sustapenaren bidez.

Era berean, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, hainbat bilera egin dira Udaleko langileen batzordearekin, 2018ko urtarrilaren 17an eta maiatzaren 8an, 15ean eta 21ean, egoki irizitako alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Azkenik, deialdien argitalpenei dagokienez, Estatuko Administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak 15. artikuluan xedatzen duenez, deialdiak eta oinarriak BOEn argitaratuko dira.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 24. artikulua xedatzen duenez, lan eskaintza publikorako eskaintzak EHAAren edo Foru Aldundi edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratuko dira. Azken kasu honetan, EHAAren ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 11n

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA

2018ko LEP eskaintza. A/B taldeak

TITULAZIO-TALDEAK	ESKALAK	DESTINO OSAGARRIA	MATRIKULA KONTUA				OFERI			
			KODE BERRIA	IZEN BERRIA	D. D.	HIZK. ESK.	2SUS	3DISC	4LEP	GUZTIRA, ORO HAR
A	1100A	24	1035	Administrazio orokorreko G. T.	fpNo	3	2		2	4
					Bai	3		1		1
	2110A	24	5003	Arkitektoa	fpNo	3	1		1	2
			5004	Ekonomilaria	fpNo	3			1	1
			5007	Psikopedagogo G. T.	Bai	3	1			1
			5008	Bromatologoa	fpNo	3			1	1
			5016	Lanaren bidezko prestakuntzako G. T.	Bai	3			1	1
			5022	Psikologoa G. T.	fpNo	3	1	1	1	3
					Bai	3	2		4	6
			5024	Lan Osasuneko medikua	fpNo	3			1	1
			5026	Informatika aplik. G. T	fpNo	3	1	1	1	3
					Bai	3			2	2
			5027	Sistema informatikoen ustiapeneko G. T.	fpNo	3			1	1
			5029	Dokumentalista G. T	fpNo	3	1			1
					Bai	3			1	1
			5039	Hautaketako G. T. (psikologoa)	Ez	3			1	1
			5045	Telekomunikazioetako G. T	Ez	3			1	1
			5047	Aukera berdintasuneko agentea	Bai	3			1	1
5051	Gazteriako G. T.	Bai	3	1			1			
5070	Giza baliabideetako G. T	Ez	3	1			1			
5072	Hiri paisaiaren arloko G. T	Ez	3			1	1			
B	1100B	23	1026	Ikuskari laguntzailea	Ez	3	1		1	
	2120B	23	6004	Arkitekto teknikoa	Ez	3	1		1	2
				Bai	3			1	1	
			6021	Osasun publikoko erizaina	Bai	3			1	1
			6023	Gizarte langilea, E. T.	Ez	3	1		4	5
					Bai	3	2	1	3	6
			6038	Antolakuntza eta baliabideen arloko E. T.	Bai	3			1	1
	6047	Immigrazio teknikaria	Bai	3			1	1		
2120B 2230B	23	1402	Jard. sozio-kulturaletako E. T.	Bai	3	2	1	2	5	
		6039	Kirol koordinatzailea, E. T.	Bai	3	1		2	3	
		6053	Gizarte-inklusioko e.t.	Bai	3			1	1	
BC	1110B 1110C	21	2002	Kudeaketa teknikaria	Bai	2	1		1	
Guztira, oro har							20	5	38	63